

## Hilaren 9ra arte egongo da Iker Vazquezen Lemoa lehen erakusketea

13. orrialdea

## Neandertalen barri gehiago jakiteko indusketak egiten dabilz Axlorren

Dimako Axlor koban, besteak beste, neandertalen haginak, hazurrak eta harrizko tresna asko topau ditue. Oingo udan, nazinoarteko arkeologo talde bat dago, oin dala 100.000 urte Dimako klima eta ingurua azterzen eta neandertalen bizimodua ikertzen. 12. orrialdea



## Areatzako Mendi Martxan izena emotea hilaren 15ean zabalduko da

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 322

2019ko abuztuaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Zeanuri txapelaldun eskupelotan

Zeanurik Euskal Herriko Eskuzko Herriarteko Txapelketea irabazi dau. Finala Zumarragan jokatu zan garagarriaren 21ean, eta Zeanurikoak 2-1 irabazi eutsen Donezteberri. Garaipenak Kadete eta Gazte mailetan izan ziran. 2010ean

Markina-Xemeinek irabazi eban, baina harezkerotik, Nafarroak eta Gipuzkoak irabazi dabe eskuzko Herriartekoa. Zeanurik bolada hori apurtu eta Bizkaira ekarri dau txapela.


Herriak harrerea egin eutsen Joko Alaiako pelotariak. 10. orrialdea



## Zeanuri, Areatza eta Zeberio, jaietan

Zeanurik abuztuaren 14an; Areatzak, hilaren 23an, eta Zeberioak 29an emongo deutsee hasikerea herriko jaiak. Musika estilo ugari ipiniko ditue jai giroa hiru herrietan: Nøgen, Willis Drummond eta izen handiko beste talde batzuk be egongo dira herrietan. Eta danetan, herriko txistulariak, trikitilariak edo-eta herriko musika beste banda eta formazino batzuek, batukadak, barbarako, alaituko dabe giroa egun argitan. Kuadrillen norgehiagokak desafio bitxietan, umeentzako jolasak, zirkua, antzerkia... umorea eta ondo pasetako aukerea hile osoan egongo da.

Herriko jaietz gainera, auzune eta ermita inguru askotan be ospatuko ditue jaiak. Lehiaketa desbardinak auzoen arteko hartu-emonak sendotuko ditue. 5. eta 7. orrialdeak



### ARRATIA

## Aitor Erauzkin: "euskal pelotea ez da eskuz bakarrik jokatuten"

Aitor Erauzkin Euskadiko Euskal Pelota Federakuntzako Zuzendari Teknikoagaz egon da BEGITU. Bere esanetan, eskupelota profesionala hegemonikoa da, eta erremintea eta zesta puntea sano maila desbardinean dagoz oin. Gainera, "ETB biztuta, badirudi eskua bakarrik existiduten dala". Baina hori ez da beti holan izan. Izan be, 1960 eta 1970eko hamarkadetan zesta puntea izan zan hegemonikoa eta mundu mailan oihartzun handiena eukana. 8. eta 9. orrialdeak



### ZEANURI

## Antxinako zerrategietako lana ikusgai Otzerinmendiko jaietan

Hogei urtean ketan ipini ondoren, aurten bigarren urtez jarraian karia isiotu barik geratuko da, baina Otzerinmendi kofradiaren historian basogintza tradizionala sano garrantzitsua izan da eta abuztuaren 3an, antxinako zerrategiaren erakustaldia egingo da. Erakustaldi honetan oin dala 70 urtera arte Otzerinmendin eta Gorbeialdean, azkorea, trontzea, arpana eta txapazerrea erabilia zerrategietan zelan egiten zan behar ikusteko aukerea egongo da. 13. orrialdea



### ARRATIA

## Andere Ortuzar AUMeko presidente barria

Garagarriaren 24an izan zan, udal hauteskundearen osteko Arratiako Udalen Mankomunitatearen (AUM) osaketa barrirako osoko batzarra. Bertan, herri bakoitzeko mahaikideak izentau eta presidentea aukeratzeko botazinoa egin eben. EAJ-PNVko Andere Ortuzarrek eta EH Bilduko Saioa Elejabarrietak hamarna boto jaso ebezan. Boto bardinketea dagoanean, AUMko araudiaren arabera, hauteskundeetan, mankomunitateko herrietan, boto gehien jaso dauan partiduaren hautagaia izango da presidente. Maren Iturbe AUMko Idazkariak emondako datuen arabera, EAJ-PNVk EH Bilduk baino boto 2 gehiago izan ebazan eta beraz, Andere Ortuzar, EAJ-PNVren hautagaia izentau eben AUMko presidente. 6. orrialdea

# Literatura txokoa

## AMEK EZ DUTE

Bi ama ditu personaje nagusi eleberri honek. Bata Jade/Alice ama maltzurra eta bestea nobelearen narratzailea dan idazle ona. Biak dira aspaldiko ezagunak eta ezbehar handi batek alkartzen ditu barriro be. Jade/Alicek bere eskuakaz hil ditu bere bikiak eta liburuko narratzaileak, izenik ez daukanak eta oraintsu ama egin danak, gehiago jakin gura dau hilketearen errazoen gainean. Kasuaren gordintasunagaz eta infantizidioagaz obsesionata ikerketa baten sartzean da nobela idazten doan heinean.

Umore baltza eta ironia erabiliz liburu osoak amatasunak dakarren atzera bueltarik bako aldaketez egiten dau berba. Holan, nor-

beraren identidadeak sufriduten dauan astinduz, neke fisiko eta emozionalaz, bikotean eragiten dituan aldaketek... modu errealista baten, baina baita amatasunak dakarzan gozotasun eta zorionaz be bai. Gainera, ama protagonistea alabea be badala ikusten da eta bere amagaz daukan hartuemon hotzak zelan eragiten deusan bere ama papel barrian.

Eleberri poderetsu honek aipu batez hasten dau bere 12 kapituluetakotako bakotxa, beti amatasunagaz lotutako aipu batez. Gainera, pasartean zehar euren seme-alabak abandonau ebezan Doris Lessing eta Muriel Spark idazleak gogoratzen ditu eta baita Sylvia Plathen suizidioa eta beste

puntako kasu batzuk be.

Oso irakurketa errazeko eleberri gogorra eta errealista da. Publiko heldu guztientzat gomendagarria bada be, ama garanontzat ezinbestekoa dala esango neuke. Ez daziela esan *amek ez dute...*

**Amaia Trejo Aldekoa**

**Katixa Agirre**

**Amek ez dute**

**Elkar argitaletxea**

**216 orrialde**



## TELEFONO INTERESGARRIAK

### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

### Guardiako Farmaziak

**09:00etatik 22:00etara**

### Garagar. 29tik abuztuaren 4ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50 eta 649 686 305

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

### Abuztuaren 5etik 11ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

**22:00etatik 09:00etara**

Melero. Amorebieta-Etxano.

### Abuztuaren 12tik 18ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atuxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 688 732 863

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

### Abuztuaren 19tik 25era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

### Urte osoan

**22:00etatik 09:00etara**

Gometza Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

### Parketxea

94 673 92 79

### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

### Euskotren

902 543 210

### Areatzako Notariotza

94 673 92 26

### Bizkaibus 94 612 55 55

### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

### Ermitabarri-Arrigorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

### Arrigorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**\* Adi udako ordutegiari**



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizitatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketa:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Oriol Fernandez eta Iker Perez (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Berbizkunde Arroita (Zeberio).

**Tirada:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## Babesleak:



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



## ZEURE BERBEA

### Artea Oil

Lerro batzuk Artea Oilen pasau jatana kontetako. San Antonio egunean kotxeari gasolinea botateko asmoz, gasoilaren aurrean parau nintzan Arteako gasolindegian. Itxuraz bertako langilea zanak neure guraria bete eban. Antza, bera be ez zan konturatu okerreko lekuan nengoala (mangera biak oso desbardinak dira baina). Erregaia botateko orduan neuk eskatu behar izan neutsan deskontua be egiteko. Antza, horretan be despistautaua egoan. 50 eurokoa eskura ordaindu eta aurrera, egun batzuetarako depositua beteta. Baina kotxeak igarri. Tailerrean 400 euroko aberia ordaindu eta gasolindegitik pasau nintzan ea gastuarena negoziatza ahal genduan, erdi bana edo.

Ordura arte kezkatuta banangoan, handik aurrera haserre, izan be, gasoila bota eustana ez zan bertako langilea. Hasikeran Artea Oilen arduradunak eta langile guztiak ondo erantzun eben eta onartu eben errazoa neukala, aste horretan dirua faltau jakiera, deskontua be txarto eginga egoala... Baina ezer frogatzeko grabaziorik ez ei egoan, lau egunera ezabatu egiten dirala-eta. Handik egun batzuetara dana ukatuten hasi ziran. Esan eusten, eurak ezin dabela frogatu zorioneko gasoila bota eban neu izan ez nintzanik. "Este es un espacio abierto, y aquí entra y sale cualquiera", euren esanetan.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerreko, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Laban



Eraz laprast egin eta jausteko arriskua daukan gauzeari labana dala, laban egiten dauela esaten jako (labana, ahoskatuta). Batuan, labain, labainkor edo irristakor da. Adibide bat: "Kontu handia euki harri labanakaz!". Baina berba honek badauka bigarren esangura interesgarria: zoezer lortuteko helburuagaz zintzoa ez dan jokabidea edo berbak erabiltea. Ikusi hurrengo koplak honetako adibidea: "Larrosa koloreko/begi ederrokaz,/ engañau ninduzun/berba labanakaz".

Bertakoa ez dan batek erregaia bota eta txanda horretako inor konturatu ez? Neu izan ete nintzan engainautako bakarra? Persona bakarra engainau eta berari okerreko erregaia bota? Gainera, neuk holan eskatu arren, ukatu egin deuste goragoko arduradunen bategaz berba egitea. Kontu iluna ikusten dot honetan.

Bide judizialek ez bada, ez daukat zereginik. Halan ba, besterik ez bada be, asaskau guran eta zeuok be jakin dagizuen idazten dot. Esakerea dan moduan, pobreen errazoa eta urrineko egur igerra...

IRUNE ZULUAGA

### Dime Aukeratu Plataformeari

Maiatzaren 26ko hauteskundeetan kandidatura independentetzat aurkeztu zenduen zuon taldea. Dimako bipartidismoa apurtuteko gogoa zabaldu zenduen zazpi haizeetara, eta alkarbizitza sustatutea zeunkien helburu. Gerora, ikusi dogu zuon berben balioa zein dan. Alkatetza EAJri emon zeuntseen eta gobernuan be eurakaz zagoze; horrezaz gainera, EH Bildu gobemutik kanpo itxi dozue, hau da, herrian boto gehien lortu ebazan taldeak ez dauka berbarik.

Gure galderea hau da: DA zertarako sortu zan? EAJren izenean joatea ez al zan garbiagoa izango? Zuo botoa emon eutsuen askok ba ete ekien hau pasauko zanik? Egiten dogunak egiten gaitu.

Zuok egin dozuena zergaitik egin dozuen, zuok jakingo dozue.

DIMAKO EH BILDU

### Arteako Udalari

Garagarilaren 18an Arteako Udaletik gutuna jaso genduan. Bertan Arteako "Matadero" modu ilegalean erabilten gengoala esaten euskuen, eta hilabetean berau itxi ezean, bertan dagoan dana hondakin lez tratauko ebela.

Erabilitako tonuak eta mehatxuak, ostera, min emon deusku. Ez egoan horretarako beharrik. Benetan harritu gaituana gutunean erdereari emondako lehentasunezko tratamendua izan da. Ezkerreko aldean, eta letra tipo askoz handiagoagaz, gaztelaraz.

Emma eta Maitane gara momentu honetan Torontile proiektuagaz Matadero erabilten gabizanak. Proiektu artistikoa da gurea, sormena, diseinua eta serigrafia buztartzen dituana. Sortzaileak eta artisauek gara.

Arratiako beste alkarte eta mobimentu sozialakaz alkarlanean ibiltzen gara, baita udal eta Mankomunitateagaz be. Konzientziadun proiektua gara, feministea. Gure proiektua ez da negozio edo ogibide bat bakarrik, gure ingurua eraldatzeko tresna lez ulertzen dogu, eta asko dauka militantziatik.

2017an Mataderoak bizpahiru urte eriozian hutsik, eta bertan finkatzea ebatzi genduan. Hilda egoan espazio bat bizibartzea, erabiltea. Asanblada irekia deitu genduan eta bertan horretarako bidea erraztu jakun. Sartu ginanetik argi eta garbi izan genduan herrigintzan aintuko ginala; kultura eta sormenaren difusiorako espazioa behar ebala izan. Hainbat izan dira urte honeetan egindako lanak. Open Torontile, kontzertuak, ikastaroak, Tattoo Artean... Gure ateak beti egongo dira zabalik, mataderoa herriarena dalako.

Aurreko udal taldeak baeukan Mataderoaz egiten zan erabilerearen barri, eta begi onez ikusten eban, idatzizko akordioak egon ez arren. Udal plenoan Mataderoaren egoeraz galdetu ebanean EAJ-PNVk, alkateztatik asanbladan onartutako erabakia errespetauko ebela adierazo eben.

Gazteen aisialdirako bideratuko ei da oin. Ze proiektu dago honen atzean? Beharrezkoa da martxan dagoan proiektu bat holan kanporatzea?

Luze pentsau eta gero, ez dogu espazio hau edozelan itxiko. Ez da bildurragaitik izango. Mataderoa defendiduko dogu, ez Torontilek bertan segiduteko, Arteako azken gune librea izaten segidu dagian baino. Gure helburua Arteako Udalagaz akordio batera heltzea da. Guk badaukagu horretarako borondatea. Horregaitik Udala, Arteako herritar eta eragileak eta Mataderoan interesa daukan edonor abuztuaren 14an Arteako Kultur Etxean egingo dogun batzarrera konbidatzen dogu, Mataderoaren etorkizuna guztion artean ebazteko.

TORONTILE SERIGRAFIA ARTISTIKOIA

## ERETXIA



### MIREN MADARIAGA

AEKko teknikaria

## Ez dot zalerik gura

**A**rraunean bakarrik edo taldean egin daiteke. Bakarrik zoazenean zeure eritimoa markau eta aurrera egiten dozu txiri-txiri, baina ez zara oso urrun heltzean. Aitzitik, taldean arraun egin ezkerre arinago zoaz, urrunago, beti be, alkarren artean ondo ulertu, alkarren eritimoak errespetau eta guztiok norabide berean aurrera badihardugu.

Ikusleak be egoten dira sarri askotan arraunean dabilanari begira. Ikusleen posizioa eroso da, lehorretik begira dagoz txalotzen edota txarto egiten dana kritiketan. Kanpotik kritiketea erraza da oso, esfortzurik egin barik, ezer egiten saiatu barik. Ikusleak askotan zelan egingo leukien argi daukie, baina ez dabe arraunean egiteko gogorik izaten edo ez dakielan esaten dabe, ez dabela inoz ikasteko aukerarik izan.

Lehorrean dagozan askok be ume edota gazteak arraunean egiten ez dabela kritiketan dabe. Ume eta gazte horreek arraunean egin ezean, traineruak galduko dirala esanez. Ez gara konturatutuen ume eta gazteak gizartearen isla dirala, eta egunerokoan kallean ikusitakoa ikasten dabela. Arraunean gitxi batzuek egiten dabela ikasi dabe, lehorrean egotea erosoagoa dala eta errazagoa, beraz, lehorrean egoteko hautua hartu dabe askok, eta itsasoratu behar diranean trakets ibiltzen dira arraunean.

Zertarako itsasora arraunean urten lehorrean lasai asko bagabilz? Zertarako lehorrekoak baldintzatu itsasoan ibiltera, itsasoan egoten dakiana lehorrean be arazo barik badabil? "Edukazino" horrek eroan gaitu zazpi itsastar eta lehortar baten baturak zortzi lehortar izatearen emaitzara.

Batzuetan nekeza da arraun egitea, batez be, ikusle gehiegi biraoka dabilanean, trainerua zuloz beteten deusunean, itsasoa zatar dagoanean edota marrazoak zelatan dabilzanean.

Marrazoak... hainbeste maite gaitue marrazoak estropadan gabilzala... Zergaitik gitxietsiko ete gaitue hainbestetan arraunean gabilzanean? Koherentzia gitxi erakusten dabe horreek, esan eta egiten dabenaren arteko aldea handiagotzen da une oro. Eurak neurriak hartu ezean ezin gizarteari bestelakorik eskatu.

Norberak hartu beharreko hautua izan behar da arraun egitea, hautu personala. Era berean, hautu kolektiboa be izan behar da, gizartearen konpromiso bate-ratua trainerua aurrera eroan gura badogu. Arraun egiten dakienak arraun egin behar dau egunero. Hasikeran eritimoa mantentidutea kostauko jaku, traketsago ibiliko gara, baina praktikeagaz erosoago sentiduko gara, alkarre-ri lagunduten eta alkarren bidelagun izaten.

Arraun egiten ez dakianarentzat be doakoa beharko leuke arraunean ikasteak; marrazoak, ordea, hor dabilz zelatan, betiko moduan, lehorra eta itsasoaren arteko distantziak handitzen eta beharrezko neurriak hartu behar-rean, alkarren artean burrukatzen.

Lehorrean ikusle asko egoten dala esan dogu, horreetatik asko zaleak dira, traineruen zaleak. Erraza da lehorretik txalo egitea, kanpotik animetea eta zer ondo egiten daben esatea, norberak arrauna hartu eta arraun egitea baino errazagoa behintzat. Zale asko alkatzen dira estropadetan, zale gehiegi. Guztiak egunero arraunean egingo balebe...

Motibazioa behar dau gizarteak arraunak hartzeako, motibazio hori sortzea noren esku dagoan... Ikusleak zale bihurtu behar dira eta zaleak arraunlari. Izan be, nik ez dot zalerik gura, nik arraunlariak gura dodaz. Estropadetan guztiok izan behar gara arraunlariak. Eta ez estropadetan bakarrik, trainerua egunero eroan behar dogu aurrera, norabide berean arraun egin eta alkarregaz gozatu bitartean. Zaleak larregi baloretan dira hemen eta ez gara konturatzen.

Hori dala eta, nik ez dot euskaltzalerik gura, nik euskaldunak gura dodaz. Euskaldun aktiboak behar ditu Euskal Herriak eta horretarako lanean gabilz. Euskeria hizkuntza gitxitua izanik, badaukagu lana aurretik. Zorionez euskalgintzan eta euskerearen normalizaziorako lanean gabilz-anok ez dogu behar faltarik izango, eta tristea da hori esan behar izatea.

## LUMATUTEN

ARANTZA  
ETXEBARRIA

## Papel zuria

**B**eti egin jat gogorra papela zuri baten aurrean parau eta zeozer idazten hastea, gai bat emonda ez badaukat. Papelaren moduan geratzen naz ni, zuri. Zuri-zuri. Eta ez da izaten zer kontau ez daukadalako, guztiz kontrako-gaitik baino. Egunero, astero, hilero hainbat gauza pasetan jataz -nori ez!-, baina kontua ez da zuztar barik edozer kontau eta irakurlea durdiduta ixtea. Interes minimo bat sortu behar dau papelean dagoanak, edo, behinepin, irakurlea ez da ikartu, lokartu edo aburridu behar. Gatxa egitekoa, gero!

Eta ez da bardina izaten be papela zuriari urri lehenengoan, aprilean edo garagarrean egin behar badeutsazu aurre. Urri lehenengoan planak parra-parra, aprilean ebaluazino eta autozuzenketara asko, eta garagarrean -zelango afruntua!-, ikasturteko akabuko puntua ipinteko gogo itzela. Opor-sasoian, gora begi-

ra nagoala, etorriko dira balorazioak eta aurrerantzean hobetu beharrekoak.

Letra larri dotorea ipini neban igazko urri lehenengoan, ikasturtearen hasieran. Komen eta puntu eta komen artean, jente barria ezetu dot eta inguruan daukadan jenteak sorpresa atseginak emon deustaz. Puntu eta segidu eginda pasau dira Gabonetako oporrak eta Aste Santukoak. Eta parentesi txikiak ipini ahal izan dodaz neure gustuko gauzak egiteko. Asteriskoak be ez dira faltau izan nire apunteetan: hurrengoan hobeto erreparau beharko deutset gauza dezentetxuri.

Beste papela zuri bat gura dot urri lehenengotik aurrera be. Paragraforaren hasierako letra larria ipini gura dot barriro. Ez dot erdi beteta edo erdi hutsik dagoan orririk gura. Hori dala eta, udan, astitsu nagoala, barruak guztiz hutsitu beharko dodaz, abiada hartu eta ikasturte barriari kortexe barik eta oin-ohar barik heldu ahal izateko.

## ZERTZEAN



Pedro de Madariaga (\*)

## ANGEL LARREA

**K**aligrafo handia, gramatikaria, soldadua eta menturazalea, Arratian mundura etorria, Dimako Oba auzoan alegia, Errenazimentu garaiko letragizon argitsua, Austriar Etxeko erregeen zerbitzaria. Bizkaitik gazterik aldentuta, kanpoan zendu zen.

Axmutil haizpean zegoen jaiotetxea, bizitzan sekula ahaztu ez zuena, bere euskara berbeta maitatua bezala. Euskaltzalea, Etcheperaren gizaldikoa, gogora ekarri behar den idazle aitzindaria, Juan de Iciar durangarraren ikasle izanikoari omenaldia!

(\*) Pedro de Madariaga, Diman, Oba Barrendi auzoko Madariaga izena daukan baserrian jaiotzen zela 1537. urtean. Bertako semeari eskainitako poema da.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heldzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkeru, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**asi gara Argazki Lehiaketarako argazkiak jasoten. Eburne Landajok bialdu deusku lehenengo: Ondarroako hondartzan ateratako irudia, hain zuzen be. Eburne Landajok legez, gure lehiaketan parte hartzeako, gogoratu argazkiak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbide elektronikora bialdu behar dirala. Egile bakotzak 3 argazki gehienez bialdu ahal ditu, bere izen-abizenak eta argazkia noz eta non aterata dagoan esanez. Argazki bakotzak izenburua izan behar dau. Irabazleak sari ederra eskuratuko dau, eta honek udako sensazioak luzatuteko balioko deutso.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscsl.com](mailto:gorosti@gorostiscsl.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarroa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 100  
R.P.S. 21/06

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnua: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: [gorbeialde@gorbeialde.com](mailto:gorbeialde@gorbeialde.com)

Lehendakari Agor 22  
**ETROITZ**  
Agorren gaurik osatzen

## ARRATIA

# Auzokoakaz ospatuteko jai ugari abuztuan



### Erredakzinoa

Abuztuan be, hainbat auzune eta ermita ingurutan ospatuko ditue jaiak trikitixearen soinua, barauskarria eta auzokoen konpainiagaz. Hori gitxi balitz, leku batzuetan, bi edo hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabe.

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioko San Adrian Argiñao auzuneko eta Zeanuriko Otzerinmendiko sanjustoak dira oingo hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez. Hilaren erdian, Igorren eta Zeberioan. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Hilaren 24an, sanbartolomeak ospatuko ditue Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

### Artaun (Dima)

#### Abuztuak 3, zapatua

18:30ean, txupinazoa.

18:35ean, herri kirolak eta bertso-lariak. Jon Loiolak eta Tubik, Iparraldeko jokoak; Inaxio Perurena eta Karmele Gisasola harria altxatzen; Fausto alturan; Jon eta Tubi Faustoren kontra azkoran. Aurkezlea: Gabixola.

20:15ean, txitxi-burruntzia.

22:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

#### Abuztuak 4, domekea

12:00etan, mezea.

13:30ean, trikitipotea.

19:00etan, zunba Ismagaz.

21:00etan, Bola Txapelketea.

22:00etan, zozketea.

Mozorro erakustaldia.

#### Abuztuak 5, astelehena

12:00etan, mezea.

12:30ean, umeentzako jolasak eta Mus Txapelketea.

17:00etan, Briska Txapelketea.

19:00etan, Tortilla Txapelketea.

20:00etan, Txubelazo Txapelketea.

21:00etan, txokolatea eta jaien amaieria.

### Otzerinmendi (Zeanuri)

#### Abuztuak 3, zapatua

12:00etan, mezea San Justo ermitan, meza ostean barauskarria.

13:00etan, antxinako zerrategiaren erakustaldia.

14:30ean, auzo bazkaria.

15:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.

#### Abuztuak 4, domekea

17:30ean, Bola Txapelketea.

### Murtatza (Bedia)

#### Abuztuak 10, zapatua

12:00etan, mezea Murtatzen. Ondoren barauskarria eta trikitixea eta Mus Txapelketea.

17:00etan, Briska Txapelketea. (Bikoteko bat gitxienez, Bediako).

### Azurreka (Lemoa)

#### Abuztuak 10, zapatua

12:30ean, mezea San Lontxo ermitan.

13:00etan, barauskarria trikitilariakaz.

13:30ean, erromeria eta Igel Txapelketea.

18:30ean, umeentzako jolasak.

### Igorreko Udako Jaia

#### Abuztuak 15, eguna

12:30ean, mezea.

13:15ean, barauskarria Goiko Plazan.

16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan. Bikote bakotxa modalidade batera bakarrik apuntatu ahal da. Izen emotea 15:30ean.

17:30ean, Igel Txapelketea. Izen emotea 17:00etan.

18:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz. Erromeria bitartean txokolatea. Hilaren 16tik 18ra, Igorre Saria Futbol Torneoa.

### Olazabal (Dima)

#### Abuztuak 15, eguna

12:30ean, Txakolin Eguna.

### Abuztuak 16, barikua

12:00etan, meza nagusia.

12:30ean, Umeen Bola Txapelketea.

13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea.

17:30ean, umeentzako jolasak.

18:30ean, herri kirolak. Azkolariak: Jon Rekondo eta Ugaitz Mugerza; harijasotzaileak: Mikel Lopetegi eta Inhar Urruzuno.

19:30ean, umeentzako baloiak eta

txokolatea.

20:00etan, zozketea.

### Abuztuak 17, zapatua

14:00etan, auzo bazkaria eta ondoren Kantu Bat Gara.

### San Roke (Bedia)

#### Abuztuak 16, barikua

12:00etan, mezea San Roke ermitan. Hamaiketako, trikitixea eta jantzak.

### San Antolin (Lemoa)

#### Urri lehenengoak 2, astelehena

12:00etan, mezea San Antolinen, ondoren barauskarria.

14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena.

17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

San Antolinera igoteko autobus zerbitzua egongo da 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

## ZEANURI

# Nøgen taldea Zeanuriko andramarietan

Zeanuriko jaiak soinua, batez be herriko txistulariak ipiniko deutsee hiru zubietatik egingo dabez kalejiretan. Eguazten gauean, Nøgen taldeak kontzertua emongo dau. 2016an Donostian sortutako taldea sano ezaguna egin da eta indie edo-eta folk musika zaleak batuko dira euren musikeagaz gozatuteko.



### Erredakzinoa

Arte eszenikoak be ezin dira faltatu Zeanuriko jaietan eta aurten zirku ikuskizun bat ekarriko dabe, La Trocola Circ-en *Emportats*, hain zuzen be. Andra Mari egunean egongo da ikusgai plazan 19:00etan.

Kuadrillen arteko jokoak, lehiaketa gastronomikoak eta erromeriak be ez dira faltauko.

### Abuztuak 14, eguaztena

07:30ean, Gorbeira igoera.

11:00etatik 14:00etara, Umeen Jolas Parkea.

13:00etan, txupinazoa eta hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz. Jarraian Elektroxufra taldeagaz, kantu poteoa.

13:30ean, herriko jubiladuen kopaua.

15:00etan, herri bazkaria.

17:30ean, Rally Umoristikoa. Kuadrillen arteko jokoak.

19:00etan, gazteen pelota eta pala partiduak frontoi zarratuan.

20:00etan, Salbea, Andra Mari parrokan.

22:30ean, gazteen gaua. Keniama eta Nøgen taldeen kontzertuak. Jarraian Lehian taldeagaz erromeria.

### Abuztuak 15, eguna

#### Andra Mari Eguna

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

11:00etan, meza nagusia Andra Mari parrokan.

12:15ean, umeen pelota eta pala partiduak plazan.

Goiz guztian zehar herriko txistulari eta trikitilariak girotuko dabez herriko plaza eta tabernak.

17:30ean, Zulaibarren Kuadrillen arteko IV. Futbol Txapelketako finala.

19:00etan, La Trocola Circ taldearen *Emportats* ikuskizuna.

22:00etan, Zeani Loran eta Jaie-tako Kartel Txapelketako sari banaketea.

22:30ean, Play-backa.

Jarraian, erromeria Oxabi taldeagaz.

### Abuztuak 16, barikua

#### San Roke Eguna

10:30ean, sukaldarien eguna, izen emotea.

11:00etan, hiru zubiak herriko txistulariakaz.

11:30ean, meza nagusia, Andra Mari parrokan.

12:00etan, ume eta ez hain umeen jolas parkea.

14:00etan, Paella, Tortilla eta Arroz Pastelen aurkezpena.

14:30ean, sari banaketea eta herri bazkaria plazan.

17:00etan, Zeanuriko Mus eta Briska Txapelketak.

18:00etan, Sardina Freskue umeentzako erromeria.

20:30ean, nagusientzako erromeria.

22:00etan, txokolatea.

23:00etan, hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.

**ZEURI** Jai batzordeak eta Zeauriko Udalak

Gora Andra Mariak!

**JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ**

## ZEBERIO

## Zeberioko guraso eta seme-alabak Gorbeian

## Erredakzioa

Bigarren urtez jarraian Austarri Mendi Taldeak Gorbeiaiko Ganguren aterpera urtekerea antolatu eban bagilean. Zubialde eskolako zenbait guraso euren seme-alabak izan ziran bertan.

Antolakuntzak, holan kontau deutso BEGITURI txango ha. "Pagomakurretik urten eta Arrabararaino joan ostean aterpean antolatu eta hamaiketako jan genduan. Gero Lekandara (1.309m) igon eta bazkaldutako bueltan aterpe-

ra. Arrastian, eguraldi ederrean, olgetan ibili ostean afaldu, izarrez betetako zeruaz gozatu ata lotara. Domekan, armozau eta gero Gorbeiaiko kurutzera igon genduan. Bajatukeran, Arrabako tabernan egarria asetu eta nekea uxatuta barriro aterpera bazkai-ten. Bazkalostean umeak landan olgetan segidu eban, nagusiak gauzak jaso eta aterpea atondu bitartean. Iluntzean Zeberiora bueltau eta dana oso ondo aterra zanez hurrengoan pentsetan agurtu ginan".



## IGORRE

## Maitane Ipiñazar legebiltzarkide Eusko Legebiltzarrean

## Erredakzioa

Garagarrilaren 2tik aurrera, Maitane Ipiñazarrek, Amaia Agirre EAJ-PNVren biltzarkidea ordezkatu dau Eusko Legebiltzarrean. Arregik uko egin eutsan legebiltzarkide akteari, Bilboko Udalean zinegotzi lanak soilik egiteko. Ipiñazarrek barriz, bateratuko ditu legebiltzarkide eta zinegotzi lanak, Igorreko Udalean zinegotzi be badalako. Legebiltzarreko kargua garagarrilaren 10ean hartu eban.

Kargua ilusinoz hartu dauala azaldu deutso BEGITURI Ipiñazarrek eta erronkeari aurre egiteko gogotsu agertu da. Ha-ta guzti be,

horregaitik ez dauala ahaztuko Igorreko zinegotzia danik. "Kargu biak guztiz bateragarriak dira eta herrigintzan be jarraituko dot. Ez, ez dot Igorre ahaztuko" dino.

## Maitane Ipiñazar

Maitane Ipiñazar Miranda (Igorre, 1990) Lan Harreman eta Giza Baliabideetako graduadua da eta, aldi berean, Zuzenbideko Gradua ikasten dabil. Giza Baliabideen konsultore moduan lan egiten dau enpresak kudeatzeko soluzino informatikoetan espezializautako enpresa baten. Zinegotzia da Igorreko Udalean eta Euzko Gaztediren (EGI) Lurralde Kontseiluko kidea da.



Maitane Ipiñazar.

## ARRATIA

## Andere Ortuzar Arratiako Udalen Mankomunitateko presidente barria

## Erredakzioa

Garagarrilaren 24ko plenoan izentau eban Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) presidente. Andere Ortuzar EAJ-PNVren hautagaiak eta Saioa Elejabarrieta EH Bildukoak hamarna boto lortu ebezan osoko batzarrean. Izan be, Elejabarrietak EH Bilduko 9 botoaz gainera, Ubi-

deko Herri Kandidaturearena be jaso eban. Bardinketea dagoan kasuetan araudiak aurreikusten dau udal hauteskundeetan boto gehien izan dituan alderdiko hautagaiak hartuko dauala presidente kargua. EAJ-PNVk, Mankomunitadea osotuten daberen herrietan, 3.703 boto izan ebezan; EH Bilduk, 3.701 eta UHK-k 77. Presidentea hautatu aurretik,

Maren Iturbe AUMko Idazkariak jakitera emon eban herri bakoitzean nortzuk aukeratu dituen hurrengo lau urteotan mahaikide izateko eta edadeko mahaia be osotu zan.



## Mankomunitatearen osaketea

**Presidentea:** Andere Ortuzar (EAJ-PNV).

**Edadeko mahaia:** zaharrena, Jesus Mari Etxebarria; gazteena, Aritz Undurraga.

## Mahaikideak

**Arantzazu:** Jesus Mari Etxebarria (EH Bildu).

**Areatza:** Yazmina Beobide (EH Bildu) eta Damian Agirremota (EAJ-PNV).

**Artea:** Alberto Intxaurrea (EAJ-PNV).

**Bedia:** Aitor Sorriketa (EAJ-PNV) eta Imanol Ispizua (EAJ-PNV).

**Dima:** Jose Mari Atutxa (EH Bildu) eta Josu Gorospe (EAJ-PNV).

**Igorre:** Ibon Ozerin (EH Bildu), Karmele Aurrekoetxea (EH Bildu), Jon Koldobika Mendiolagoitia (EH Bildu), Andere Ortuzar (EAJ-PNV) eta Maitane Ipiñazar (EAJ-PNV).

**Lemoa:** Saioa Elejabarrieta (EH Bildu), Aritz Undurraga (EH Bildu), Iñaki Barrenetxea (EAJ-PNV) eta Zuriñe Etxebarria (EAJ-PNV).

**Ubide:** Aritz Azkorbebeitia (UHK).

**Zeanuri:** Gurutze Etxebarria (EAJ-PNV) eta Javi Campo (EH Bildu).

## ARTEA

## Udalak Torontileri Mataderoa ixteko agindu deutso Gazte Leku bat egiteko

## Erredakzioa

Arteako Udalak Gazte Leku bat egiteko proiektua daukala eta Mataderoa deitzean dan udal eraikina urri lehenengorako hutsik itxi behar dabela adierazo deutse bertan lan egiten daberen Torontile Serigrafia Artistikoko artisaui.

Torontilekoai lokala ixteko agindu deutse Udalak. "Momentu honetan enpresa pribadu bat dago hor, ez dago ezelango akordiorik enpresa pribadu horregaz. Eta ipini gara kontaktuan eta esan

deutsegu urri lehenengorako lokal hori hutsik geratu behar dala proiektu bat gura dogulako egin gazteentzako" azaldu deutso BEGITURI Ainare Sanchez Kultura zinegotziak.

Udalagaz sinatutako akordiorik ez egoan arren, "aurreko udal taldeak baeukan Mataderoaz egiten zan erabilerearen barri, eta begi onez ikusten eban" dinoe Torontilekoak. 2017tik dagoz lokal honetan Arratiako beste alkarte eta mobimentu sozialakaz alkarlanean, "baita udal eta Mankomunitadeagaz be".

## Gazteentzako lokala

Mataderoa gazteentzako lokal izateko proiektua egin gura dauala Udalak dino Sanchezek. "Oin ezin gara sartu hara barrura proiektua egiteko; hau da, zelan dagoan ikusteko, ze beharizan daukazan... Proiektutxo bat egin gura dogu, diru laguntzak nonbaitetik bilatu eta martxan jarri".

## Torontile

Emma Aguilar eta Maitane Iruarizaga diseinatzaileak sortutako Torontilek sormenari lotutako diseinu eta serigrafia tailerra da. Proiektua "ez da negozio edo ogibide bat bakarrik, gure ingurua eraldatzeko tresna moduan ulertzen dogu, eta asko dauka militantziatik" euren esanetan.

Torontilek Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatutako Arratiako Enpresa Ideien Lehiaketea irabazi eban 2017an.

## ARRATIA

## 29 enpresek lehiakortasun arloko bereizgarriak lortu ditue

## Erredakzioa

Eusko Jaurilaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak garagarrilean antolatutako Turismoaren Astean banandu ziran diplomak.

Eusko Jaurilaritzako Basquetourren, Turismoaren Euskal Agentziaren bitartez, Euskadiko turismo sektoreko enpresen garapen tek-

nologikoa eta barrikuntzea sustatzeko zenbait ekimen bultzatzen dabilz, lehiakortasuna handitzeko. Gorbeia, lehiakortasun arloko 29 bereizgarri emon deutesiez, SICTED, IKT, EKOLABEL eta Energiaren Eraginkortasuna programetan. Programa honeek, kalidadearen kudeaketarako sistema, mikro-enpresen heldutasun digitala, etiketa ekolo-

gikoen fidagarritasuna eta energia kantidadearen murrizketea neurtzen dabez, hurrengo hurrengo.

## Arratiako enpresak

Zeanuriko hotel bik, bina diploma jaso ditue. Ellauri hotelak Ekolabel eta Energia Eraginkortasunari erre-konozimentuak eta Etxegana hotelak Sicted eta Energia Eraginkortasunari jagokona. Agroturismo Amalau-k be Sicted saria jaso dau. CR Altzustek, Aptos Ermitabarrik, Taberna Zaharrak, ADR Gorbeialdek eta OT Gorbeialdek be jaso dabez lehiakortasun arloko bereizgarriak.

## AREATZA

# Bederatzi egunez jaiak hartuko dau Areatza

Areatzako musika zaletasuna igartzen da jaietako egitarauan. Beste batzuen artean, Areatzako Bandak, Areatzako Danborradak, Areatzako Txistulariak, Bizkaiko Gaiteroak, fanfarreak, elektrotarangak, batukadeak, kontzertuak, erromeriak eta DJak ipiniko deutsee musikea jaietako 9 egunai.

### Erredakzioa

Erraldoiak eta Buruhandiak ikusi ahal izango dira jantzan Areatzako jaietan eta gastronomia be ez da faltauko. Besteak beste, Tortilla, Makailao eta Paella Txapelketak edo-eta kopauak lagunartean gozatzeko eta indarrak berreskuratzeko balio izango dabe.

Umeak be ondo pasetako aukerea izango dabe eurentzat programautako, zezen puzgarriakaz, bits jaiagaz, eta karaoke eta play-back lehiaketakaz.



### Abuztuak 23, barikua

**14:00**etan, txupinazoa Areatzako Bandaren eskutik. Areatzako Txo-xongilo, Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.

**17:00**etan, kalejireia Kittu taldeagaz. **20:00**etan, Salbe herrikoia. Hilarion Eslavaren Salve Regina. Areatza eta beste herrietako lagun taldea.

**20:30**etan, Rukula taldea plazan. **23:30**etan, XXVI. Play-back Lehiaketea. Jarraian erromeria Triki-zio taldeagaz.

### Abuztuak 24, zapatua

**06:00**etan, mortero jaurtiketea. **11:30**etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. **12:00**etan, meza nagusia.

**12:45**etan, txistu eta metalezko musika tresnen kalejireia. **13:00**etan, herri kirolak plazan.

**14:00**etan, kalejireia Areatzako trikitilariakaz.

**17:45**etan, eskupelota partiduak. **20:00**etan, Areatzako BatucAKKB batukada taldea.

**23:00**etan, erromeria Joxpa taldeagaz.

**03:30**etan, txokolate jana.

### Abuztuak 25, domekea

**12:30**etan, Remenbering Kaixo kalejireia. Kaixo Fanfarrea gogoratuz.

**13:30**etan, Tabernen arteko Pintxo Lehiaketea tabernetan.

**21:30**etan, Areatzako Banda.

### Abuztuak 26, astelehena

**11:00**etan, zezen puzgarriak umeentzat.

**17:00**etan, Tute Txapelketea.

**18:00**etan, karaokea ume eta gazteentzat plazan.

**20:00**etan, Ganso & Cia-ren *Babo Royal* kale antzerkia Añibarro parkean.

### Abuztuak 27, martitzena

**11:30**etan, arimen aldeko mezea.

**13:00**etan, edadekoentzako kopaua.

**14:00**etan, Makailao Txapelketea (aurkezpena).

**16:00**etan, Briska Txapelketea.

**18:00**etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

**20:00**etan, txokolatea txurroakaz

edadekoentzat.

**22:00**etan, Alboka taldearen kontzertua Zubizarra plazatzon.

### Abuztuak 28, eguaztena

**12:00**etan, bits jai.

**16:00**etan, Mus Txapelketea.

**17:00**etan, umeen play-backa.

**18:30**etan, Kolore Bonba Jaia DJ Ismak girotuta. Erropa zaharrakaz joatea komenidu da.

**19:30**etan, Rally Umoristikoa. Kuadrillen arteko jokoak.

**22:00**etan, kontzertu sorpresa Mo-txo tabernan.

### Abuztuak 29, eguena

**20:00**etan, Tortilla Txapelketea (aurkezpena).

**21:30**etan, afari herrikoia. Mozorro gaua. Gaia: Bideo-joko eta marrazki bizidunetako pertsonajeak.

**23:30**etan, Diskofesta Sound Areatzan.

### Abuztuak 30, barikua

**13:45**etik **14:30**era, Paella Lehiaketea.

**17:45**etan, eskupelota partiduak.

**20:00**etan, Burrumba Elektrotaranga.

**23:30**etan, kontzertuak: Uckaia eta Willis Drummond. Jarraian DJ Isma.

### Abuztuak 31, zapatua

**18:00**etan, Danborrada Txikiaren kalejireia.

**22:30**etan, kuadrillen kalejireia eta suak. Areatzako kuadrillak, Areatzako Danborrada, Deabru Beltzak antzerki konpainiaren *Les Tambours de Feu (Su danborrak)* ikuskizuna, su artifizialak, Pasai Txaranga.

**00:00**etan, erromeria Ezten Giro taldeagaz.

**02:00**etan, Areatzako Danborradaren bigarren bueltea. Jaien agurra.

## ZEBERIO

# Txubel eta buruhandiak lehenengo eguneko protagonistak jaietan

### Erredakzioa

Abuztuaren 29an hasi eta urri lehenengoaren 2ra arte, Zeberio Sandoniak ospatuko ditu. Egun horreetan, kontzertuak, kalejirak, erromeriak, pailazoak, antzerkia, lehiaketa gastronomikoak eta kirolak ondo pasetako aukerea eskainiko deutsee edade guztietako zeberioztar eta hurreratutako guztiai. Erromeriak Oxabi eta Beranduegi taldeakaz, elektrotarangak, Leie Meie taldearen kontzertua, Ein GO Kantan eta Dantzana... musikeak herria hartuko dau jai egunetan. Lehiaketak, play-backa, gastronomia lehiaketak, eta abar be ez dira faltauko jaietan.

### Abuztuak 29, eguena

**18:30**etan, kuadrillen jaitsiera Zubibarritik plazara, animazioa herriko trikitilari gazteakaz.

**19:00**etan, txupinazoa. Txubel eta Buruhandiak.

**21:00**etan, Ein GO taldea.

**21:30**etan, herri afaria eta afalostean Ein GO taldea.

### Abuztuak 30, barikua

**11:30**etik **14:00**etara, umeen parkea eta puzgarriak.

**13:00**etan, kalejireia, herriko trikitilari gazteakaz.

**15:00**etan, jubiladuen bazkaria.

**17:00**etan, Arotza Moso abeslaria.

**17:30**etan, herriko jubiladuen Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

**17:30**etan, bits jai.

**23:00**etan, erromeria Oxabi taldeagaz.

### Abuztuak 31, zapatua

**11:30**etan, txirindulari martxea umeentzat. Ibilbidea: Ermitabari-Ugao-Zeberio Plazea. Alkartzeko eta ibilbide osoa egiteko Ermitabarrin **11:30**etan, edo bestela, Ugaon **12:00**etan. Aukerea dago edozein lekutan martxan sartzeako. Derrigorrezkoa izango da kaskoa eroatea. Txu-Txu tren a ibilbide osoan joango da.

**11:30**etan, Txu-Txu tren.

**13:00**etan, kalejireia herriko trikitilari gazteakaz.

**14:00**etan, Makailao, Patata tortilla eta Paella Txapelketak.

**21:00**etan, play-backa. Erabiliko dan abestia pendrive baten grabau eta udaletxera eroan behar da. Atzen eguna, abuztuak 23.

**23:00**etan, kontzertuak: Leie Meie taldea, rock kontzertua eta Fritanga Elektrotaranga. \*Autobusa do-ban egongo da Igorretik eta Ugao-tik. **21:30**etan, Igorre (Gau Lora); **21:45**etan, Artea (Matadero). Bueltea **04:30**etan, Zeberio; **04:45**etan, Artea; **05:00**etan, Igorre.

### Urri lehenengoak 1, domekea

**11:00**etan, kalejireia txistulariakaz.

**11:30**etan, eskupelota finala. Bi-harko Izar Gazteak Torneoa.

**18:00**etan, umeen jolasak.

**20:00**etan, Los Cinco Bilbainos taldearen kantaldia.

### Urri lehenengoak 2, astelehena

**12:00**etan, Gozatzera, egurrezko jolasak ume eta helduentzat.

**13:00**etan, Laura Orueren aldeko XX. urteurreneko mezea. Ondoren barauskarria.

**13:00**etan, poteoa Koldo eta Unai trikitilariakaz.

**15:00**etan, Indababak lagun artean.

**18:00**etan, pailazoak. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* lana.

**19:30**etan, erromeria Beranduegi taldeagaz.



Jai batzordeak eta  
Areatzako Udalak  
jai zoriontsuak opa deutsuez

Ondo pasau jaietan!



Zeberio Udalak  
jai zoriontsuak opa deutsuez

Ondo Pasau Sandonitan!

## AITOR ERAUZKIN BILBAO

# "Sasoï baten zesta puntea izan zan hegemonikoa"

Aitor Erauzkin Bilbao, pelotari ohia, Euskadiko Euskal Pelota Federakuntzako Zuzendari Teknikoa da. Lemoaztar honek, ikasketak, beharra eta zaletasunak, euskal pelotearen munduari lotuta izan ditu beti. Lemoako pelota eskolan hasi eta hantxe jokatu eban amateurretan. SHEE-IVEFeko ikasketak amaitzear egoala, bosgarren urtean, hasi zan pelota eskoletan lanean, Gernika eta Galdakaoko eskoletan, hain zuzen be. Gero, Lemoako pelota eskolara itzultzeko aukerea izan eban eta berau aprobetxauta, bertako klubagaz lanean hasi zan eta jarraitu dau gaur arte. Euskadiko Federakuntzako Zuzendari Tekniko bere lanpostuan, entrenatzaile, koordinatzaile eta, besteak beste, antolatzaile lanak egiten ditu; tartean, Pelotako Euskal Selekzinoko hautatzaile hainbat modalidadetan.

Bere ibilbide profesionala dala-eta, euskal pelotearen gaineko sano ikuspegi osoa dauka Erauzkinek eta mundu honen gazi-gozaok konpartidu dauz BEGITUguz.

**Erredakzinoa**

**Pelotan dana zara zu: pelotaria izandakoa, Danel Elezkano eta beste askoren entrenatzailea, Euskal Selekzinoko**

**hautatzailea... geratzen jatzu ezer egin barik pelota munduan?**

Egia esan, nire ibilbidea progresiboa izan da. Pelota munduan egitura bat dago: klubetatik ha-

sita, lurraldeko federazioetatik pasau eta nazino mailako federaziozina artekoa; hau da, Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzara. Nik guztiak pasau dodaz. Pelota mundua ez da oso internazionala

eta esan daiegegu danean egon nazala. 19 urtegeaz hasi nintzan eta 38 urte daukadaz. Urte honetan estamentu guztiak ikutu eta bizi izan dodaz.

Eskupelota eta zesta punta profesionalan lan egin dot pelotariak prestatzen, batez be arlo fisikoa. Pelota profesionalagaz daukadan hartu-emona, pelotariak da, enpresak ez dot zuzenean hartu-emonik izan.

**Esan lei Euskal Herrian eskupelotea bigarren kirol hegemonikoa dala, ezta? Zapatumeketan ETB1en peloteak hartzean dau prime time osoa. Zergaitik?**

Eusko Jaurlaritzak hiru kirol babesten ditu, estrategikoak diralakoan: euskal pelotea, arrauna eta herri kirolak. Babes hori laguntza instituzionalean, ekonomikoan eta emoten jakon zabalpenean gauzatzen da. Uste dot hitzarmen bat daukiela EITBk eta eskuzko pelota profesionalen enpresak. Ez dakit holan ete dan ala ez, baina eskupelota profesionalaren audientzia handiagaz jus-

tifiketan dabe hainbeste denpora eskaintzea.

Babesa daukien hiru kiroleatik oihartzun eta hedapen handiena euskal peloteak dauka. Baina hedapena eskupelota profesionalera mugatzen da. Hau da, kirol amateurraren edo federazioak kudeatzen dabenaren oihartzuna oso eskasa da. Gainera, euskal peloteak hainbat modalidade ditu eta eskupelota profesionalari emoten jako bakarrik hedapena, eskupelota profesionalak etekinak emoten deutzazala telebista publikoari argudiatuz.

**Enpresa bi dagoz eskupelota profesionalan. Azaldu apur bat merkadu horren funtzionamentua.**

Egon badagoz enpresa gehiago baina garrantzitsuenak bi dira, Aspepelota eta Lehen Asegarce zana, eta gaur egun Baiko pilota deitzean dana. Horreek biak LEP (Liga de Empresas Profesionales de Pelota a Mano) sortu dabe.

Lehen, Lehen mailako profesional sariak, buruz buruko eta bikoteko txapelketetan, Euskadiko Federakuntzako presidentek emoten ebazan eta antolaketea federazioaren bitartez egiten zan. Araudia be Federakuntzeak egindakoa izaten zan. Baina bere egunean, enpresa profesionalak ebatzi eben hortik aldentzea eta euren egitura propioa sortzea. Gaur egun, enpresa profesionalak antolatzen ditu LEP txapelketa ofizialak. Orduan, aldentu ziranetik, federazio eta enpresen arteko erlazino bakarra, federazioak epaileen prestazioa emotea izan da, baina hori be amaitu egin da aurten. Holan, lehiaketa ofizialen kontrola, epaileak egiten dabena, enpresa biren esku geratu da. Enpresa bi honeek sortutako erakundeak, guztia antolatu eta kontrolatan dau. Federazioak euskal pelotea antolatuten dau eta enpresa profesional bik eskuzko pelota profesionala. Hau da, klubak oinarriagaz egiten dabe behar eta oinarri horretatik pelotariak sortzean dira. Enpresak jarraipen bat egiten dabe eta interesetan

**Olaxte**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazioa  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**DIZIPLINA ANITZEKO ZENTRUA**  
eileke  
• Psikologia  
• Logopedia  
• Fisioterapia  
• Ulermen tailerra  
• Jarrera arazoak  
• Emozioen tailerra  
• Psikomotrizitate  
• Adimen emozionala  
• Trebetasun sozialak  
• Estimulazio goiztiarra  
• Eta askoz gehiago...  
652 702 650 / 672 481 370  
Lehendakari Agirre 4 · Igorre  
maite.eileke@gmail.com

**Kili~Kili**  
Antzoki eta Puzteak  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 63 81

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA  
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 64 82 - 606 664 018

**bizkaifisios**  
IGORRE FISIOTERAPIA ZENTROA  
Elexalde, 4  
48140 Igorre  
94 631 35 08  
igorre@bizkaifisios.com  
ANDRA MARI KLINIKEA  
Postzi Zabala, 1  
48960 Galdakao  
94 457 23 64  
galdakao@bizkaifisios.com



jakien eskuzko pelotariak, profesional mailan sartzeako eskaintza egiten deuse. Normalean, baiezkoa emoten deuse pelotariak. Gero, edozein enpresatan moduan, langile eta enprearen arteko erlazinoa dago eta pelotari bakotzak kudeatzen dau bere kontratua.

**Enpresa pribaduak dira eta telebistak partidu profesionalak emoten ditu. Horrek esan gura dau, bariku, zapatu eta domeketan, enpresa bi horreen produktuak beteten dabela ETB1eko programazionoko zati oso handi bat.**

Bai. Uste dot bien interesa dala: batek audientzia lortzean daua-lako, eta besteak kontraprestazio ekonomiko bat lortuko daua pentsetan dot.

Dana dala, federazioak antolatutako txapelketa ofizial asko dagoz. Euskal Herri mailan lurralde federazioak dagoz. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako federazioak batuta dagoz Euskadiko Euskal Pilotaren Federakuntzan; gero Nafarroako Pilota Federazioa dago eta Iparraldeko Pilota Federazioa. Federazionok funtzio publiko delegaua daukagu pelotearen kudeaketea egiteko. Hau da, pelota guztia antolatuten dogu: 5 urteko umetatik hasita, jokatu gura dan edadera arte. Baina beti kirol amateurra.

Kirol amateurrean, federazioak antolatuten dabezan txapelketa ofizialak dagoz, egutegi ofizial bat daukienak, eta edozein erakundek antolatutako txapelketa pribaduak dagoz.

Pelota profesionala beste mundu bat da. 1980ko hamarkadara arte, erremintako pelotea, hau da palea; zesta puntea eta eskua egozan. Gaur egun be jarraituten dabe beste modalidade horreek, baina ez lehengo mailan. Eskuak aurreakada handia egin dau 1980-1990 hamarkadetatik geroztik.

Euskal Herrian badagoz beste modalidade batzuk, baina ETB biztuta, badirudi eskua bakarrik existiduten dala. Astegoietan *prime time* ordutegi osoa esku-pelota profesionalak hartzean dau. Euskadiko Pilota Federakuntzak barriz, 8 emonaldi emoten ditu ETBn eta ETB4n izaten dira, eta ez zuzenean. Guk 8 emonaldi daukaguz; profesionaletan barriz, ia 150 jaialdi dagoz. Bariku, zapatu eta domeketan emoten dira, 52 astetan: gitxi gorabehera 150

emonaldi zuzenean. Holan izan da behintzat nik Federakuntzan emon dodazan urte bi honeetan.

**Pentsetan dot pelotari izar batek ez daua futbolari izar batek beste irabaziko, baina emoten deusta sensazioa bide horretatik doala kontua. Zenbat irabazi ahal dau frontoi guztiak bete, eta telebistako share marka guztiak apurtuten dituan pelotari batek?**

Nik ez daukat daturik. Norbakoak negoziatan dau berea, baina esan deikezut bigarren edo hirugarren mailako profesional batek justu-justu biziteko lain irabazten daua. Hau da, ikasketa batzuk egiten eta bere formazionan jarraitzeko. Lehen mailako eta bigarren mailako pelotarien artean alde handia dago. Baita lehen mailako pelotarien artean be. Maila gorenean dagozan 8-10 bat pelotarik besteak baino gehiago kobrauko dabe. Hor be alde handia egongo da. Eta lehenengo bien eta besteen kontratuen artean sekulako aldea dago.

Baina, debutatzen dauan mutil batek izan leikean kontratuaren eta izar batek izan leikenaren artean alde handia egon arren, ezin da alderatu futbolearen irabazten danagaz.

**Desbardintasunai jagokie-nean, jakina, kirol guztietan legez, andra eta gizonen arteko desbardintasuna, ikaragarria da pelotan.**

Izan be, gaur egun ez dago andrazkoen pelota profesionalik. Egia esan, atzen bost urteotan Emakumeen Master Cupak oihartzuna emon deuse nesken esku-pelotari, baina neskak urteetan jokatu dabe pelotan. Batez be, erramintan, gomazko paletan. Gauzea da beti modalidade hegemonikora goazela; hau da, eskura. Eta euskal pelotan modalidade hori gizezkoena da. Hori lizentzien konparaketan ikusi daiteke; gizezkoen 2.000 lizentzia badagoz, andrazkoen 100 lizentzia.

Oin, txapelketetan, eskura jokatzen dabilzan neskak, lehen be eskura hasi ziran eta heldu zan edade bat non itxi behar izan eben. Haur mailara arte eskura jokatu izan daben neskak ikusi dabe aukerea dagoala jarraitzeko Master Cupari esker. Eta horrek be ekarri dau Fedarazinoetatik txapelketak sortzean hastea eta

txapelketok jarraipen bat izatea. Etorkezuean be, modalidade honek garapena badauka, andren pelota profesionala ekarriko dau akaso. Beste gauza bat da ze baldintzatan antolatuko daben, ze oihartzun izango dauan eta ze jarraipen medioen aldetik.

Esku-pelotea desbardintasun handiko kirola da eta hemen dago desbardintasunik handiena. Arrakala ikaragarri handia da. Horreri bueltea emon beharko jako, eta hori kirolarentzat be, oportunitate bat da. Eta ikusi be egin beharko da zelan eragiten deuse fenomeno honek beste modalidadeai. Ze oin arte egoan jokalarik bolumenik handiena gomazko paletan zan, eta oin gomazko paletan jokatzen daben neskak eskura pasetan dabilz. Ze esku-pelotan diru bat irabazten hasi dira, paletan irabazten ez dabena.

**Beste eredu bat posible da masa-kiroletan?**

Euskal Herrian pelotea, asko ikusten da, baina gitxi praktikau. Lizentzia gehiago dagoz futbol, saskibalo, eskubaloia eta beste



kirol batzuetan. Baina bai, esku-pelota profesionalak publiko handia dauka.

Kirolean, beste eredu bat egon beharko litzateke, baina gizarte neoliberal honetan beste egitura bat sortzea gatxa da. Merkadu libre dago.

Esku-pelota profesionala hegemonikoa da eta erremintea eta zesta puntea sano maila desbardinean dagoz oin, baina zesta puntea hegemonikoa izan zan 1960-1970 hamarkadan, 1980ko hamarkadara arte. Mundu mailan be oihartzun handia eukien Jai Alaiak. Erreminteak be bai, batez be Bizkaian. Historiako lehenengo andra kirolari profesionalak erraketistak izan ziran XX. mendearen hasieran.

Guk hiru joko daukaguz: Plaza libre edo Plaza, eremu irekian jokatzen dana; trinketea eta ezker hormako frontoia. Bere sasoiaren egitura profesionala joko zuzenetan baita be, plaza libreetan eta. Ezker hormako frontoia da sortu zan atzen joko eredu.

**Lemoan EH Bilduko zinego-**


**tzia be izan ziran 2011-2015 legegintzaldian. Politikeari itxi egin deusezu?**

Bai guztiz. Esperientzia oso aberasgarria izan zan eta lau urte horretan asko ikasi neban. Bizitzako master bat egitea bezala izan zan, udal baten arlo guztiak ikutzen dira eta herriko jentea sakonago ezetuten dozu. Lau urte oso bizi eta politik izan ziran. Baina nik argi eta garbi itxi neban legegintzaldi baterako konpromisoa hartzean nebal eta konpromisoa hartzeagaz batera %100 emongo nebal baina hori amaitu zanean, nire bizitzako etapa bat amaitu zan. Lemoako jenteezag hartu-emona izaten jarraituten dot baina oin Areatzan bizi naz.

**Pelotatik ateraten dozu bizimodua. Zer gustetan jatzu egitea zure denpora librean?**

Denpora librean be kirola egitea gustetan jata. Gaur egun gitxiago egiten dot, ume txiki bi dodazalako eta ez dot denpora askorik kirola praktiketako, baina egia esan, niri kirol guztiak gustetan jataz.

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Carre. 29    Telefonoa: 94 673 60 14    IGORRE BIZKAI

**NAIARA HORTZ KLINIKA**  
Lehenakuzko Agorre, 19  
48140 Igorme  
94-631 52 26

**Troka**  
Lanbideari Agorre 18

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
E. Agorre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia)    Telefonoa: 94 673 64 75

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

**LASTO ALTXATZEA****Tubi  
Gipuzkoako  
txapeldun  
lasto altxatzen****Jose Martin Bustinza "Tubi".****Erredakzioa**

Joxe Martin Bustinza "Tubi" dimoztarra, Gipuzkoako Federazioan dago eta bagilaren 30ean Usurbilen jokatuako Txapelketa irabazi eban, 45 kiloko fardoa, minutu bitan 25 aldiz jasoz eta indarrean dagoan marka bardinduz. Patxi Ituarte izan zan bigarrena, 17 jasoaldi eginda eta Pello Argayak hirugarren egin eban, 16 jasoaldigaz.

**Bizkaiko Txapelketa**

Bizkaiko Lasto Altxate Txapelketa abuztuaren 21ean jokatu da, Bilboko Ametzola auzoan 19:00etan.

**TXIRRINDULARITZEA****Bizkaia eta  
Euskadi Junior  
Txapelketako  
probak Igorren****Erredakzioa**

Bizkaiko Txapelketako proba, garagarrilaren 13an jokatu zan Arratia Ziklista Elkartek antolatuta. 100 kilometroko ibilbidea izan zan, Igorren hasi eta amaituta. Gaurisa taldeko Oscar Solana izan zan azkarrena eta 02:14:51 denporeagaz irabazi eban txapela, bigarrena eta hirugarrenari segundo bi baino ez aterata. Izan be, Elektroalavesa Etorikiko Mikel Berazak eta Gastronomía Vasca-Avia-Liko Iker Mancebok bigarren eta hirugarren egin eban 02:14:53 denporeagaz.

Euskadiko Junior Txapelketako proba barriz, garagarrilaren 27an izan zan. 17 kilometroko erlojupeko banakako proba izan zan. Mutiletan, azkarrena, Sakana Group-Aralar TTko Igor Arrieta izan zan. Limousin-Oriakoko Iñaki Diazek egin eban bigarren eta Ampo-Ikolan Sportseko Enekoitz Asparren izan zan hirugarrena. Neska jagokienean, helmuga sartu zan lehenengo Muriar-Limousineko Naia Amondarain izan zan. Taf Turnkey Engineering taldeko Amaia Lartitegik egin eban bigarren eta Laboral Kutako Uxue Albizuak hirugarren.

**PELOTEA****Zeanurik irabazi dau Euskal Herriko Eskuzko Herriarteko Txapelketa**

**Finala Zumarragan jokatu zan eta Zeanurikoak 2-1 irabazi eutseen Doneztebekoai, Kadete eta Gazte mailetako partiduak irabaziz.**

**Erredakzioa**

Joko Alaiko pelotariak sano maila ona daukie eta Anton Erkiagak eta Maren Emaldik erraz irabazi eban lehenengo partidua, 5-22 emaitzak erakusten dauan moduan. Izan be, partidu osoan zehar Zeanurikoak nagusitasun handia erakutsi eban.

Gazte mailako partidua be erraz irabazi eban Joko Alaiko Imanol Urigoitia eta Lander Erkiagak, 11-22, hain zuzen be.

Nagusien partidua Doneztebekoak irabazi eban, baina ordurako Herriarteko txapela Zeanurikoentzako zan. Beñat Mendia eta Mikel Beldarrainek 22-16 galdu eban partidua.

Danel Beitia, Beñat Etxeita eta Aimar Atutxa dira Herriartekoa jokatu dauan taldeko beste pelotariak.

**Finalerdia Gipuzkoako txapeldunaren kontra**

Finalera sailkatzeko, Bizkaiko Herriartekoa irabazita, Astigarraga Gipuzkoako txapeldunaren kontra jokatu behar izan eban finalerdia Joko Alaikoak, garagarrilaren 14an. Partidu honek be Zumarragako Beloki frontoian jokatu ziran eta Astigarragari 2-1 irabazi eutsien, gero finalean egingo ebenaren bardina. Finalerdian be, Kadete eta Gazte mailatan irabazi eban Zeanurik eta Nagusietan galdu.

Kadeteetan Anton Erkiagak eta Maren Emaldik 10-22 irabazi eban, eta Gazte mailan, Imanol Urigoitia eta Lander Erkiaga 8-22 nagusitu jakien Astigarragakoai. Nagusietan lortu eban puntua Astigarragak, Beñat Mendia eta Mikel Beldarraineri 22-7 irabazita.

**Lorpen handia**

"Gauza handia izan da" adierazo deutso BEGITURI Luis Angel Erkiaga Joko Alaiko presidentek. Izan be, 2010ean Markina-Xemeinek irabazi eban ezkerotik, Nafarroak eta Gipuzkoak irabazi dabe eskuzko Herriartekoa. "Zeanurik irabaztea garrantzia handikoa da Zeanuri, Arratia-Nerbioi eta Bizkaia osoarentzat".

Lehen aldia da Zeanuri finalera heldu dala. Eta bidean lesino asko izan dituela ekarri dau gogora Joko Alaiko presidentek. Baina kategoria bakoitzean hiru pelotari osotutako taldea egoanez, aurrera egin ahal izan dabe. "Garagarrilean sendatzen joan dira eta ikusten dogu emaitza".

**Zeanurik harrerea**

Pelotazalez betetako autobus bat eta kotxe asko joan ziran Zumarragara Joko Alaikoak animetako. Bueltan, plazan txistulariak eta Eñaut Intxaurragaren bertsoakaz

egin eutseen harrerea. Hiru zubien zeharreko kalejiran joan ziran gero.

Atzenik, gura ebenak lagun arteko bazkaria egin eban, sagardotegiko menua, sagardotegi ibiltari baten.

**Jon Urutxurtuk Zumarragan eta Zeanurin ateratako argazkiak.**

**Jubiletan  
nazelako  
GALANTA  
lentzeria  
traspasetan dot.**

**Gura dozu  
zuk hartu?**

Tel. 94 631 90 08  
Agirre Lehendakaria 23  
Igorre

MENDIA

# Areatzako VIII. Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik hilaren 15etik aurrera

Erredakzioa

Mendi Martxea urri lehenengoaren 21ean izango da eta ibilbide bi dagoz aukeran. Luzeak 26,5 kilometro ditu eta 1.500 metroko desnibel positiboa. Laburrak barriz, 19,5 kilometro eta 800 metroko desnibel positiboa. Ibilbide laburra Bikotxganen hasiko da eta antolakuntzak eroango ditu bertara partaideak autobusetan. Martxa amaieran parriladea eta oparia egongo da partaide guztientzat, eta beste opari batzuk be zozketatuko dira.

Izena abuztuaren 15etik aurrera emon daiteke [www.areatzakomendimartxa.blogspot.com](http://www.areatzakomendimartxa.blogspot.com) webgunean. Urri lehenengoaren 19ra arte, 8 euroko prezioa izango dau. Hortik aurre-



ra 12 euro pagau beharko dira. Egunean bertan be emon ahal izango da izena martxan parte hartzeako.

FUTBOLA

# Futbol torneoa Igorren

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak antolatuta, abuztuaren 16, 17 eta 18an, Igoerreko Saria Futbol Torneoaren 33. edizioa jokatuko dabe, Arratia, Barakaldo, Bermeo eta Urdulizko gizonen futbol taldeak Urbieta zelaietan.

Hilaren 16an, barikuan, arrastiko 18:00etan, Arratia eta Gazte mai-

lako Liga Nazionaleko Barakaldo neurtuko dira. Hurrengo egunean, Bermeok eta Urdulizek jokatuko dabe finalerako pasea. Partidu interesgarria izango da; izan be, Bermeo Hirugarren mailatik jeitsi da eta Urduliz Hirugarren mailan dago. Dimekan izango da finala, 18:00etan. Han, aurreko egunetako partiduetako irabazleak saiatuko dira aurtengo torneoaren euren gaitasuna erakusteko.



PELOTEA

# Elezkano Bizkaia Torneoaren finalean

Erredakzioa

Garagarriaren 25ean Ermuan jokatutako Bizkaia Torneoaren finalean Bilboko abuztuaren 20ko finalean egongo dira Elezkano II.a eta Zabaleta, Oiz taldeak 2-1 irabazi eutsalako Gorbeia taldeari. Elezkano II.ak eta Zabaleta 10-22 galdu eben Altuna III.a eta Ladis Galarzaren kontra, baina Oiz taldekoak, banakakoak irabazi eben, pasea lortuz. Oiz taldeko Elordi, Egiguren V.ari nagusitu jakon 18-16, eta Jaka, Retegi Biri 18-9.

Bizkaia Torneoaren taldeak jokatu eta txapelketa bakarra da. Sei talde dagoz Bizkaiko mendien izenak hartu dabezanak. Elezkano II.-Zabaleta bikotea, Oiz taldeko kapitaniak dira. Altuna III. eta Rezusta, barriz, Gorbeia taldekoak. Rezustak, min hartu eban ezkerreko eskuan aurreko partiduan eta Ladis Galarzak jokatu eban haren ordean Ermuan.

**Gure** ikastetxeak  
Euskalduna kalidadezkoa herrikoa

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

**ZURE ZERBITZURA**  
Avia guztira 192 gasolindegia  
Avia Adenor 35 gasolindegia

**ADENOR Igorre**  
[www.aviaenergias.es](http://www.aviaenergias.es)

Explanada Punta Ceballos z/g  
48508 Zierbena (Bizkaia)  
Tel. +34 944 130 159

**Banaketa Berogailuetarako gasolio zerbitzua**

**GURE BIHOTZA**  
Operazio zentroa  
Bilboko Portu Autonomoan

## INDUSKETAK

**Arkeologo talde bat Dimako Axlor koban dabil neandertalak ikertzen**

Bizkaian topautako gizaki hazur antxinakoenak Axlorren topau dira.

**Erredakzioa**

Iberiar peninsulea da munduan neandertalen arrasto gehien di-

tuan eremua. Bertan, 30 bat aztarnategi dagoz, eta Axlor, munduan neandertalen hazur eta hagin gehien dituenen 5. edo 6. lekuan

## LEHIAKETEAK

**Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketarako lanak hasi dira heltzean****Erredakzioa**

Lanak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira eta bialduteko epea zemendiaren 15era arte dago zabalik. Euskeraz idatzitako ipuin erotikoen izango dira; artxibo baten narrazioa eta beste baten egilearen datuak bialdu behar dira.

Aurten, Zertu Kultur Elkarteak, Igorreko Udalaren laguntzeagaz, Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketea ipini dau martxan, Basauriko Euskarabila alkartearen eta Dimako Kalenturak ipuin erotikoen lehiaketari segidea emoteko. Arratia izena hartu arren, Euskal Herri osorako



izateko bokazioagaz sortu da.

Hiru sari dagoz aurreikusita. Irabazleak 600 euro jasoko dauz, bigarrenak 400 euro eta Arratiako lanik onenarentzako 250 euroko saria egongo da.

egongo litzateke Jesus Gonzalez-Urquijo arkeologoaren arabera.

Axlorreko aztarnategia Barandiaranek topau eban 1932an. Baltzolaria joiala, musteriense sasoiko materialak topau ebazan eta aurkikuntza publikau eban. 1936an erbesterratu zan eta bueltan beste aztarnategi batzuetan egin eban lan. 1967an Axlorrera bueltatu zan eta 1974ra arte egin eban behar han. Orduan 84 urte ebazan. Bere atzen landa lana izan zan hau.

2000 urtean hasi ziran barriro indusketak Axlorren. "Hori egiten da ikerlari talde batek galdera historikoren bat zabalik daukanean. Eta 1999an polemika bat egon zan neandertalen gaitasunen gainera" azaldu deutso BEGITURI Jesus Gonzalez-Urquijo indusketako zuzendariak. "Neandertal basatien ereduak ez ebalu funtzionetan ikusi genduan. Ebidentzia arkeologikoak erakusten eben portaera sozial konplejuak ebezala. Orduan 2000. urtean kontu honeri erantzuna emoteko proiektuari ekin geuntsan".

Holan, 2000tik 2008ra arte, udan arkeologoak egon ziran Axlorren landa lana egiten. 2009tik 2017ra ez da landa lanik egin, baina bai beste lan batzuk: materialak sailkatu eta abar. 2018an laginak hartu ebezana, datazioak, karbono 14agaz barik, beste metodo batzukaz egiteko, karbono 14ak 40.000 urtetara bakarrik ailegetan da eta. Axlorren, eremu bi dagoz aztertzen: bata oin dala 100.000 urte ingurukoa, eta beste oin dala 40.000 urtekoa.

Aurten, oin dala 100.000 urtekoan dabilz lanean. "Orduko klima Diman zelangoa zan jakin gura dogu. Badakigu epela zala, kaban hartutako animalia gehienak oreinak ziran eta. Geroago, bisontek ehizatu ebezana eta horrek esan gura dau geroago klima hotza zala. Baina oin dala 100.000 urte klima beroa zan".

**Taldea**

Kantabriako unibersidadeko Jesus Gonzalez-Urquijo eta Bordeleko unibersidadeko Talia Lazuen irakasleen zuzendaritzapean, Euskal Herri, Espainia eta Australiako aditu talde bat dago lanean. Pedro Castaños, Aranzadi Zientzia Elkarte arkeozoologoak ugaztunak ikertzen ditu, ehizatutako animaliak, barbarako. Xabier Murelagak, UPV-EHUkoak, mikrougaztunak aztertzen ditu; hau da, bertan bizi ziran animalia txikiak, klimaren



gainera informazio asko ematen dabe eta. CSICeko Sebastian Perez palinologoak, polenak ikertzen ditu Historiaurreko landaredia berregiteko. La Laguna unibersidadeko Carolina Mallol mikromorfologoa da eta bere eginkizuna sedimentuak eta sua ikertzea da, zelan erabilten zan sua, hain zuzen be. Unibersidade bereko Marga Jambriña geologoak, landare paisajearen barri emoten daben biomarkatzaileak aztertzen ditu. Paisajeak eta ingurua berregiteko, Kantabriako unibersidadeko Manuel Frochoso geologoa dago. Eta OSL eta ESR metodoak erabiliz datazioak egiteko Australiako unibersidadeko hiru ikertzailek ikertzen dabe Axlorreko materiala. Adelaidako unibersidadeko Lee Arnold eta Martina Delmuro geokronologoak OSL metodoa erabilten dabe datazioak egiteko eta Grifitheko unibersidadeko Mathieu Duvalek ESR metodoa erabilten dau sedimentuen dataziorako.

Koban jasotako sedimentuak eta materialak Dimako eskolara eroaten dabez, han ipini dabe laborategia eta. Laupabost aste irauten dau kanpaina bakotzak.

**Neandertalak**

Beste poblazio batzuen aztarna gitxi batzuk egon arren, Axlorren garrantzitsuena neandertal populazioen aztarnak dira. Neandertalak oin dala 40.000 urte inguru desagertu ziran. Ehiztari-biltzaileak ziran; izan be, nekazaritza oin dala 10.000 urte inguru sortu zan. "Asmakizun barria da" dino Gonzalez-Urquijok.

Ehiztari-biltzaile populazio guztiak legez, nomadak ziran, baina nomadismoan be graduak dagoz eta Axlorren denporaldi

luzeak pasetan ebezana eta gauza landuak egiten ebezana. "Ondo ordenatutako suak dagoz eta horrek erakusten dau denpora luzea egiten ziralta bertan, baina baita be egitura sozial konplejua eukiela." Horrek bat egiten dau neandertalen irudi barriagaz, portaera sozial konplejuak euki ebezala esaten dauanagaz.

Neandertalak, gaixok eta zaharrak zaintzen ebezana eta hildakoak lurperatzen hasi ziran lehenengo gizakiak dira. Sapiens-en aldean, umeen hilobiratzek arduratsuek ziran. Umeak hobeto zainduta egozan eta gizartean leku hobe eukien.

Ehiztari-biltzaile gizarteetan, alkartasun estrategiak erdigunean dagozala dino arkeologoak eta gizarte horreetan desbardintasunak ez ziralta hain handiak. Ezin zan eszedenterik gorde eta aberastasun kontzeptua egotekotan, guk daukagunatik desbardina izan behar zan derrigorrez.

Baina aldaketak dagoz denporan zehar. Neandertalak be historia daukie eta hori erakusten dau Axlorrek. "Ikusi dogu oin dala 100.000 urteko neandertalak egiten ebena eta oin dala 80.000 urtekoak edo 50.000 urtekoak egiten ebena desbardina zala. Aldagarritasun historiko handia dagoala ikusi dogu" dino Gonzalez-Urquijok.

Axlorren ikusi dan beste gauza bat da garaikide ziran Europako neandertalak eta Afrikako sapiensak antzeko portaera sozial konplejuak euki ebezala.

Axlorren landutako harri asko, hau da, tresna asko topau ditue. Eta harrizko tresnak informazio asko emoten dabe, ikusten dalako nondik eta zelan ekarri dituen, zelan landu dabezana, zertarako erabili diran, eta abar.

**Talia Lazuen eta Jesus Gonzalez-Urquijo indusketako koordinatzaileak.**

## ONDAREA

# Antxinako zerratokietako lana ikusgai Otzerinmendiko San Juston

Hogei urtean ketan jarri ondoren, aurten bigarren urtez jarraian karobia isiotu barik geratuko bada be, Zeanuriko Otzerinmendi kofradiaren historian hain garrantzitsua izan dan basogintza tradizionalari protagonismo berezia emongo deusie aurtengo San Justo jaietan otzerinmendiztarrak.

### Jon Urutxurtu

Abuztuaren 3an, zapatuan, eguerdiko 12:00etan emongo jakie hasikerea jaiari, ermitan mezea ospatuz. Mezearen ostean, eta ohitura zaharrari eutsiz maiordomoak barauskarria, ardao zuria eta gailetak, bananduko ditu San Justora hurreratzen diranen artean.

13:00etan antxinako zerrategiaren erakustaldia egingo da. Bertan, Gorbeialdean azkorea, trontzea, arpana, txapazerrea... moduko tresnak erabiliz, trenbideetarako trabiesak, baserrien eraikuntzan erabilten ziran haageak eta oholak zelan ateraten ziran erakutsiko da; Gorbeialdean oin dala 70 urte arte ikusi eitekean zerrategietako lana ikusi ahal izango da. Ondoren, motozerrea erabiliz altzari eta irudi desbardinak egingo dira enborrak landuz, era honetan basogintzan emon dan bilakaerea isladatuz.

14:30ean, Kofradiako auzobazkaria egingo da San Justoko harexpean. Bazkari herriko horretan edozeinek parte hartu daike, aurretik izena emonda. Arrastian, 17:30etik aurrera Mus eta Briska Txapelketak jokatu dira.

Hurrengo egunean, abuztuaren



4an, domekan, jaiak jarraipena eukiko dau eta arrastiko 17:30ean Bola Txapelketea jokatu da. Txapelketa honetako lehenengo lau sailkatuak San Lontzon hurrengo astean jokatu dan finalerako txartela lortuko dabe, Altzuan, Undurragan, Ipiñaburun eta San Lontzon bertan jokatuak txapelketetan finalerako txartela lortu dabenakaz batera.

### Otzerinmendiko Kofradia

Abuztuko lehenengo asteburuan, Gorbeia mendiaren magalean, Zeanuriko Otzerinmendi auzuneko Justo eta Pastor Deunen baseli-

zearen inguruan Arratia bailarako erromeriarik bitxi eta herrikoienetakoa ospatzen da.

Beste osagai batzuekatz batera, baselizea auzuneari nortasuna emoten deusan ardatzetako bat da. Baina horrez gainera, Otzerinmendikoaren kasuan Kofradia izenez ezetuten dan Euskal Herri tradizionalaren gizarte eta politika antolaketarako egiturearen hainbat elementuk bizirik jarraitzen dabe oindino: maiordomoa eta basazaina karguak; Kofradiaren urteko batzarra, auzolanean egiten diran bidegintza eta landare ipintea, eta abar.

### ANTXINAKO ZERRATOKIAREN ERAKUSTALDIA

Erakustaldi honetan oin dala 70 urtera arte Otzerinmendi eta Gorbeialdean zerrategietan zelan behar egiten ziran ikusteko aukerea eskaintzen da. Zerrategi honetan egiten ziran gehienbat hiru eginkizunerako erabilten ziran egur landuak:

1- Etxebizitzan eta baserrien eraikuntzarako haageak eta oholak.  
2- Untzigintzarako, hau da itsasontziak egiteko. Lehenago itsasontziak egurrezkoak izaten ziran eta.

3- Trenbideetako trabiesak egiteko, batez be XIX. mendearen hasikeratik aurrerantza.

Zerratokia basoan bertan edo baserri bat eregiten ziran inguruan altxatzen ziran. Normalean kontraterreno egoan toki baten altxatzen ziran, urkulu eran jarritako enborren gainean, holan kontraterrenoa aprobetxatuz, enborrak edo tronkoak zerratokiaren gainean errezago ipinten ziran eta.

Enborra zerratokiaren gainean egoanean, lotu egin behar izaten ziran, eta horretarako "txakurrak" izeneko untzeak erabilten ziran.

Enborra lotu ondoren, arpana erabiliz, langileak lau kostanera kentzean eutsezan enborrari, eta holan trabiesa edo hage bat lortzean eben. Arpana trontza handia bat da, eta tresna hau astintzeko, langile bat zerratokiaren goiko aldean jartzen ziran eta bi azpiko aldean. Arpanak azpiko aldean kirten bat dauka eta kirten hori, graduau egin daiteke, azpian dagozan langileen neurria egokitzeke eta era horretan, euren lana errazago egiteke. Tresna hau astintzeko indar handia egin behar izaten ziran eta horregaitik hiru behargin ibiltzen ziran beraz astintzen; arpanaren bidea errazteke, beste batek ziria sartzean eban, ebatzen joian bitartean.

Trabiesatik edo hagetik oholak aterateke, beste tresna bat erabilten eben txapazerrea deritxana. Arpana baino pisu gitxiagokoa eta arinagoa da, eta normalean persona biren artean erabilten ziran.



## ERAKUSKETEAK

# Bederatzi argazkitan jasotako iragana

### Erredakzinoa

Lemoa lehen izenpean, bagilaren 7tik abuztuaren 9ra, herria zertan aldatu dan eta zertan ez erakusten dabe antxinako 9 erretratuk. Argazkirik zaharrena 1911koa da eta barriena 1953koa. Argazkiok, banderola euskarrian, atera ziran lekutik ahalik eta hurbilen ipini ditu Iker Vazquez Artetxe egileak, herriko historiako hainbat gertakizun kontetan daben ibilbide bat eginaz. Udal informaziorako herriko paneletan, ibilbidearen mapak dagoz eta mapa horreetan agertzen dira non dagozan banderaxo guztiak. Mapako puntu bakoitzean QR kode bat dago eta kode hori eskuko telefonoaz jaso ezke-

ro, hor dagoan argazkiaren fitxea irakurri daiteke: nok egin eban argazkia, ze urtetan, eta abar.

Vazquez 2017an hasi ziran artxiboak arakatzan eta Lemoako antxinako 200 argazki inguru



Iker Vazquez.

batu ditu. Gehienak Eusko Ikaskuntza eta Cementos Lemonako artxiboetatik. "Beste lan bat egiten nenbilala Lemoako argazki oso zahar bat topau neban, eta kuriosidadeak jota, hasi nintzan argazki bila" dino. Hurrengo urtean, 2018an, Eusko Jauriaritzako Ikertu programako laguntza eskatu eban proiektua gauzatzeko. Udalaren laguntza osoa euki dauala be adierazo dau Vazquezek.

### Lemoa lehen lab

Proiektua erakusketa horretan ez geratzea gura dau egileak eta proiektuari jarraipena emoteko edo, Lemoa lehen lab izenpeko idea azaldu eutsen erakusketearen aurkezpenera bildu ziran herrita-

rrai. "Herri laborategi moduko bat izango litzateke. Herriko jentea nik hasitako lanaz jaubetzea. Hau da, herriko jentearengana joan eta album zaharrak eskatu eta eskaneat-

zea". Helburua, argazki zaharrak ez galtzea litzateke, herriko memoria jasoteko. Hortik abiatuta, baita, jentek herrian egiteko proiektu kultural edo artistikoak planteatea be.

## IKUSKIZUNAK

### Kale antzerkia eta zirku ikuskizuna

#### Erredakzinoa

Jaietan kaleak antzoki edo zirku pista bihurtu daitezke eta hori gertatuko da Zeanurin, abuztuaren 15ean, 19:00etan eta Areatzan 26an 20:00etan. Zeanurin, La Trocola Circ konpainiak *Emportats* zirku

ikuskizuna ekarriko dau plazara eta Areatzan, Ganso & Cia konpainiaren, *Babo Royal* antzerki ikuskizuna Añibarro parkean egongo da ikusgai.

*Emportats* diziplina desbardinak batzean dauzan zirku ikuskizuna da. Akrobaziak, malabarismoa, musikea eta atek erabiliz egindako lanak dira ikuskizun honen osagaiak. "Ikusgai eta ikusezinaren jolasaren bitartez, musika-hizkuntza, umorezko edo poesia-lengoaia moduko lengoia erabiliz, irudi eta idea originalak sortu, eta zentzumen biaje erakargarri baten murgiltzen dau ikuslea" dino taldekoak euren webgunean.

## AGENDEA

### ABUZTUAK 1 LEMOA

Urri lehenengoaren 16ra arte, Udalak antolatutako *Grafiti* ikastarorako emon daiteke izena 94 631 30 05 telefonoan edo [euskara@lemoa.net](mailto:euskara@lemoa.net) helbidean.

**TEORIA ETA PRAKTIKA**

**Egutegia:**  
Irailak 20, barikua: 18.00-20.30  
Irailak 21, zapatua: 16.30-13.00  
Urriak 1, barikua: 18.00-20.00  
Urriak 5, zapatua: 16.30-13.00

**Zenbatekoa: Doakoa**

**Leku kopurua: 15**

**Izena emateko azken eguna: irailak 16**

Hilaren 9ra arte, Iker Vazquezen *Lemoa lehen* erakusketa-ibilbidea.

### ABUZTUAK 2 ARRATIA

Hilaren 16ra arte, AEK-k antolatuta, AEK-ekin mendian ere euskaraz! Hondarribitik Iزابara.

### ABUZTUAK 3 DIMA

Artaungo jaiak. 18:30ean, txupinazoa; 18:35ean, herri kirolak eta bertsolariak. Jon Loiolak eta Tubik, Iparraldeko jokoak; Inaxio Perurena eta Karnele Gisasola harria altxatzen; Fausto alturan; Jon eta Tubi Faustoren kontra azkoran. Aurkezlea: Gabixola; 20:15ean, txitxi-burruntzia; 22:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.

#### ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendin. 12:00etan, mezea eta ostean barauskarria; 13:00etan, antxinako zerrategiaren erakustaldia; 14:30ean, auzo bazkaria; 15:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.

#### ZEBERIO

San Adrian jaiak Argiñon. 12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

### ABUZTUAK 4 DIMA

Artaungo jaiak. 12:00etan, mezea; 13:30ean, trikipoteoa; 19:00etan, zunba Ismagaz; 21:00etan, Bola Txapelketa; 22:00etan, zozketea. Mozorro erakustaldia.

#### ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendin. 17:30ean, Bola Txapelketa.

### ABUZTUAK 5 DIMA

Artaungo jaiak. 12:00etan, mezea. 12:30ean, umeentzako jolasak eta Mus Txapelketa; 17:00etan, Briska Txapelketa; 19:00etan, Tortilla Txapelketa; 20:00etan, Txubelazo Txapelketa; 21:00etan, txokolata eta jaien amaiera.

### ABUZTUAK 10 ARANTZAZU

Arginatx Mendi Taldeak antolatuta,

Gorbeira gauetz.

#### BEDIA

San Lorentzo. 12:00etan, mezea Murtatzen. Ondoren barauskarria eta trikitixea eta Mus Txapelketa; 17:00etan, Briska Txapelketa. (Bikoteko bat gitxienez, Bediakoa).

#### LEMOA

Azurrekako jaiak. 12:30ean, mezea San Lontxo ermitan; 13:00etan, barauskarria trikitilariakaz; 13:30ean, erromeria eta Igel Txapelketa; 18:30ean, umeentzako jolasak.

#### ZEBERIO

Elizondoko jaiak. 12:00etan, mezea San Lontzon eta ondoren barauskarria.

### ABUZTUAK 14 ARTEA

19:00etan, Torontilek deituta, Mataderoaren erabilerearen gaineko batzarra Kultur Etxean.

#### ZEANURI

Zeauriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean. Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

### ABUZTUAK 15 AREATZA

Urri lehenengoarean 19ra arte, Areatzako Mendi Martxan izena emateko epea zabalik [www.areatzakomendimartxa.blogspot.com](http://www.areatzakomendimartxa.blogspot.com) webgunean.

#### DIMA

Olazabalgo jaiak. 12:30ean, Txakolin Eguna.

#### IGORRE

12:30ean, mezea; 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan; 16:00etan, Briska, Mus eta Tute Txapelketak Beheko Plazan. Bikote bakotxa modalidade batera bakarrik apuntau ahal da. Izen emotea 15:30ean; 17:30ean, Igel Txapelketa, izen emotea 17:00etan; 18:30ean, erromeria Jokaldi taldeagaz. Erromeria bitartean txokolata. Hilaren 16tik 18ra, Igorre Saria Futbol

Torneoa.

#### ZEANURI

19:00etan, La Trocola Circ konpainiaren *Emportats* ikuskizuna plazan.



#### ZEBERIO

Andra Mari jaiak Zeberioan. 12:00etan, mezea ermitan eta barauskarria.

### ABUZTUAK 16 BEDIA

12:00etan, mezea San Roke ermitan. Hamaiketako, trikitixea eta jantzak.

#### DIMA

Olazabalgo jaiak. 12:00etan, meza nagusia; 12:30ean, Umeen Bola Txapelketa; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketa; 17:30ean, umeentzako jolasak; 18:30ean, herri kirolak. Azkolariak: Jon Rekondo eta Ugaitz Mugerza; harrijasotzaileak: Mikel Lopetegui eta Inhar Urruzuno; 19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolata; 20:00etan, zozketea.

#### IGORRE

18:00etan, Igorre Saria Futbol Torneoa. Arratia vs Barakaldo. Urbieta zelaian.

### ABUZTUAK 17 DIMA

Olazabalgo jaiak. 14:00etan, auzo bazkaria eta ondoren Kantu Bat Gara.

#### IGORRE

18:00etan, Igorre Saria Futbol Torneoa. Bermeo vs Urduliz. Urbieta zelaian.

### ABUZTUAK 18 IGORRE

18:00etan, Igorre Saria Futbol Torneoa finala Urbieta zelaian.

#### ZEBERIO

Kofradia eguna Zeberioan.

### ABUZTUAK 23 AREATZA

Areatzako jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### ABUZTUAK 24 ZEBERIO

Urizarko jaiak. 12:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

### ABUZTUAK 26 AREATZA

20:00etan, Ganso & Cia konpainiaren, *Babo Royal* ikuskizuna Añibarro parkean.



### ABUZTUAK 29 ZEBERIO

Zeberioko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### ABUZTUAK 30 AREATZA

Goizaldeko 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik etxera bueltetako autobusa doban. Arratiako



## Alboka taldea Areatzako jaietan

Hilaren 27an, 22:00etan, Alboka taldeak Zubizarran joko dau, Areatzako San Bartolome jaietako egitarauaren barruan.

Taldeak 1994an sortu zan, era instrumental eta akustikoan, musika tradizionala biltzeako eta interpretetako. Hogei urte honeetan, taldeak bost disko kaleratu ditu eta adituen errekonozimentua jaso dau. Taldean musikari askok jotzen dabe. Honeek dira Areatzan izango diranak: Iker Lopez de Bergara (albokea eta flautak), Joxan Goikoetxea (akordeoia, perkusinoa, txirula eta sintetizadoreak), Juanjo Otxandorena (bouzukia), Xabi San Sebastian (gitarra eta ahotsa), Arkaitz Miner (biolina eta mandolinea), Iosune Marin (mandolinea, gitarra eta ahotsa) eta Iraide Ansorena (perkusinoak).

Udalen Mankomunitateak antolatuta. 30 urtera arteko gazteentzat.

### ABUZTUAK 31 AREATZA

22:30ean, Danborrada eta kuadrillen kalejireagaz batera Deabru Beltzak antzerki konpainiaren *Les Tambours de Feu (Su danborrak)* ikuskizuna.



#### ZEBERIO

Zeberioko jaiak. Udalak ipinita autobusa doban Igorretik eta Ugaotik. 21:30ean, Igorre (Gau Lora); 21:45ean, Artea (Mataderoa). Bueltea 04:30ean, Zeberio; 04:45ean, Artea; 05:00etan, Igorre.

### URRI LEHENGOAK 1 ZEBERIO

20:00etan, Los Cinco Bilbainos taldearen kantaldia.

### URRI LEHENGOAK 2 LEMOA

12:00etan, mezea San Antolinen, ondoren barauskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena; 17:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz. San Antolineran igoteko autobus zerbitzua 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

#### ZEBERIO



18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Musua* lana.

# AKIKMIKO

I  
m  
a  
n  
O  
l  
a  
t  
u



## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### MOTORRA SALGAI

125 ccko motorra salgai. Kymco Agility City. Prezio onean. Interesdunak 699 615 008 telefonora deitu.

#### AIREA GIROTZEKO GAILUA SALGAI

Airea girotzeko gailua saltzean dot, 800 euro, barri-barria. Egurrezko sehaska opari. Interesdunak 620 276 471 telefonora deitu.

#### TEILAK SALGAI

Baserri konponketa baten osteko kurbadun teila erdibarriak saltzean dira. Prezioa 0,70 euro negoziagarriak. Telefonoa: 630 363 971.

#### DANERIK ORTU BILA

Lur zati baten bila gabiz Igorren ortu txiki bat eta animalia batzuk ipinteko asmoagaz. Interesdunak 660 638 324 telefonora deitu.

#### ETXE BILA

Uritik alde egin guran Arratiako herri

baten alokairu bila dagoan Bilboko bikote gaztea gara. 685 787 387. Amaia eta Eneko.

#### LONJEA ALOKATZEN DA

Lonjea alokairuan Areatzan. 35 m<sup>2</sup> eta komuna. Egokia negozioa edo bulegoa jartzeko. Telefonoa 634 400 920.

#### IRAKASLE BILA

2019-2020 ikasturterako, 4. DBHko Fisika eta Matematikako klase partikularrak emoteko persona bat behar da. Telefonoa: 658 726 587.

**Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

BEGITUKO kamiseta bana.

Ainhua Zuluaga (Igorre)  
Miren Atutxa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 17 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
@-IG  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tlfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

*Kepa Intxausti*  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**begitu**  
anaitia utzi ezazu

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, s/n 48530 LEMOIA, Bizkaia  
Tel: 609 482 830 • 609 206 717

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tel: 94-673-70-87  
Tel: 609-79-49-54

**ZEKUTZE**  
JATEXEA  
Tel: 94 631 52 83  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
[zekutzejateak@hotmail.com](mailto:zekutzejateak@hotmail.com)

*Pinturas Anatia*  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizkaia egin eta bukunduten dogu.  
Tel. 94 607 78 33  
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

# aterpe

*Jatetxea*

## SAN BARTOLOME MENUA

### HASIKERAKOAK

Ezkur-urdaiazpiko iberikoa eta solomoa  
Itsaski otarra

Etxeko foie micuita, sagar eta jengibreagaz

### PLATER NAGUSIAK

Lebatza, saltsa amerikarrear bustitako otarrainxkakaz beteta  
Entrekota pipermorroakaz

### POSTREA

Torrada brioche ogian, izozkiagaz

35 € BEZa barne

Errioxako ardao ondua JD, Bizkaiko Txakolina JD, ura barne

Jaietarako menua, kristalagaz inguratutako geure  
terrazan dastatzeko itzelezko ikuspegiagaz

[www.hotelbalnearioareatza.com](http://www.hotelbalnearioareatza.com) - [info@hotelbalnearioareatza.com](mailto:info@hotelbalnearioareatza.com) - 94 657 27 05

